




Sifilisaren akuriak, eta ez pertsonak



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Tuskegee (Alabama, AEB), 1932. Sifilisaren aurkako tratamenduak oso arriskutsuak, toxikoak eta eragin-kortasun txikikoak ziren garaian, AEBko Osasun Publikoko Zerbitzuak (PHS) esperimentu bat jarri zuen abian 600 subjektuengan gaixotasun benerearen eboluzioa aztertzeko. 600 horietatik, guztiak gizonezkoak, 399k ordurako sifilisa zeukaten, eta gaixorik ez zeuden 201 hartu zituzten, kontrol talde modura. Printzipioz, bi parteentzat zen onuragarria tratua. Medikuek sifilisari buruz gehiago jakiteko aukera izango zuten, eta gaixoei doako tratamendua, klinikara joateko doako garraioa, otorduak eta, hilez gero, ehorzketasegurua emango zizkieten.

Baina gizon haiei ez zieten diagnostikoa garbi adierazi: “odol txarra” zutela esan zieten, sifilisa, anemia, neke kronikoa eta beste gaixotasun batzuk izendatzeko erabiltzen zen termino lausoa. Ezta ikerlanaren benetako helburua ere: tratamendurik gabe sifilisaren progresio naturala zein zen eta heriotzeraino iristen zen behatzea.

1940ko hamarkadan penizilina bihurtu zen sifilisa tratatzeko sendagairik eraginkorrena eta zabalduena, baina Tuskegeeko medikuek ez zieten giza akuriei horren berri eman. Eta, badaezpada, beste bideren batetik jakingo zuten beldur, penizilinarik inolaz ere ez hartzeko agindu zieten. Eta, hala, gaixoak plazebo hutsez tratatzen jarraitu zuten, ez tratatzen, alegia.



TUSKEGEEKO ESPERIMENTUKO SUBJEKTU BATI PLAZEBOA TXERTATZEN, 1971N.

Esperimentuak 40 urtez iraun zuen. Zenbaki ofizialen arabera, 399 parte-hartzaileetatik 28 sifilisak berak jota hil ziren, eta beste 100 hari lotutako konplikazioekin. Soilik 74 geratzen ziren bizirik. Gainera 40 gaixoren emazteak ere kutsatu ziren eta 19 haur gaitzarekin jaio ziren.

1966an Peter Buxtun osasun zerbitzuetako ikerlariak esperimentuaren etika ezaz kezkatuta zegoela jakinarazi zion Gaixotasunen Kontrolerako Zentroari (CDC). Haien erantzuna izan zen beharrezkoa zela ikerketa osatzea, hau da, gaixo guztiak hil arte luzatzea, autopsiak egin ahal izateko eta ondorio garbiak ateratzeko. Zortzi urtez ahalegindu zen Buxtun konponbidea osasungintzaren barruan bilatzen. Alferrik ari zela jabetu-

ta, 1972an prentsara jo zuen. Eskandalua berehala zabaldu zen eta esperimentua bertan behera geratu zen. Gerora, ikerketa biomedikoetan parte hartzen zuten pertsonak babesteko legeak indarrean jartzea eragin zuen horrek. Baina Tuskegeko biktimentzat ez zen atzera bueltarik edo kalte-ordainik izan.

John Heller PHSko gaixotasun beneereoen ataleko arduradunak, zera esan zuen esperimentua “zuritzeko” ahaleginean: “Gizon horien egoerak ez du eztabaida publikoa justifikatzen. Subjektuak ziren, ez pazienteak; material klinikoa ziren, ez pertsona gaixoak”.

600 parte-hartzaileak beltzak ziren, partzuer pobreak eta ia denak analfabetoak. Ez ziren pertsona. ●



A. KRUGER

Intsektu-uxagarria 200.000 urteko ohean

70.000 urte inguru zituen orain arte aurkitutako oherik zaharrenak. Baina Lyn Wadley arkeologoak duela 200.000 urteko ohea topatu du berriki Hego Afrikako Border Caven (argazkian, kobazuloaren sarrera). Lehenengo ohe horiek erosoak izan zitezen, belar-haxeak pilatzen zituzten. Azpian errauts-geruzak jartzen

zizkieten, tokia garbi atxikitzeke. Gainera, kanforrondo egur errearen eta kanfor hostoen arrastoak ere topatu dituzte, eta landare hori intsektu-uxagarri moduan erabiltzen zen. Alegia, duela 200.000 urteko gizakiei ere eroso eta garbi lo egitea gustatzen zitzaie, eta biharamunean ez zuten ziztadaz josita esnatu nahi. ●